

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
ANDER PRADOS OTAMENDI
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN

BERTARATU EZ DIRENAK

IGOR OTERMIN EGUIA
NEREA YEREGUI BALDA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko irailaren 10ean eguerdiko ordubata denean, Lorenzo Zubillaga Goicoechea jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Bilkura, horretarako egindako aurretiazko deialdia egin eta gero egin da, honen iragarkia Udaletxeko iragarki oholean deialdia eta gai zerrenda ezarririk egin delarik

Ezohikoa eta premiazkoa, eta lehendakaritzak publiko deklaraturiko bilkura irekirik eta hasteko beharrezkoa den asistentzia quoruma idazkariak egiaztatu duelarik, gai zerrendaren hurrengo gai honi ekinen zaio:

1. BATZARRAREN PREMIAZKOTASUNAREN ONARPENA

Toki Erregimenaren oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.b) artikuluekin eta Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Legearen 78.1. artikuluekin bat, akordioa hartzeari ekin baino lehen, Alkateak bilkuraren premiazkotasunaren berrespena udalbatzara ekarri du.

Haur eskolaren 2025-2026 ikasturtea martxan dago eta komeni da lehenbailehen Haur eskolaren kudeaketa esleitzea. Horrela justifikatzen da bilkuraren premiazkotasuna.

Premiazkotasunaren berrespena Udalbatzak bozkatzera ekarri eta bertaratu direnek aho batez onartu dute.

2. HAUR HEZKUNTZAKO ZERBITZUAREN KUDEAKETA BETELUKO "SORGINTXO HAUR ESKOLA" HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOKO IKASTETXEAN: KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Beteluko "Sorgintxo Haur Eskola" haur Hezkuntzako Lehen Zikloko Zentroan haur-hezkuntzako zerbitzua kudeatzeko kontratazio-espeditentean aurkeztutako proposamenak kalifikatzeko eta baloratzeko eratutako kontratazio-mahaiak aurkeztutako esleipen-proposamena ikusirik.

Udalbatzak honako hau erabaki du:

1. Kontratazio-mahaiak Beteluko "Sorgintxo Haur Eskola" haur Hezkuntzako Lehen Zikloko Zentroan haur-hezkuntzako zerbitzua kudeatzeko kontratazio-espedientean egindako jarduerak onartzea.

2. Kontratua honako honi esleitzea:

Enpresa: Iratzarri Elkartea

IFZ.: G31825813

Helbidea: Antigua kalea 5. Txikia. 31890 Betelu. Nafarroa

Lizitazio prezioa: 137.734,68 euro

Esleipenaren prezioa: 137.734,68 euro

3. Beteluko alkateari ahalmena ematea kontratua eta horren ondoriozko agiri guztiak sinatzeko eta formalizatzeko.

4. Erabaki hau esleipendunari eta eskaintza aurkeztu duten gainerako lizitatzailerei jakinaraztea.

Goizeko ordubata eta laurden direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.